

JAINKOA ETA GU

Maitasuna da giza-semearen egitekorik gorengoena; ez dago, beraz, Jainkoa maitatzea baiño zer obarik. Berari zor dautsagu garean dana. Orrela, berarenak garealako, seme-alabak gurasoak lez, Bera maite izan bear dogu; orrela, ba, guk daukagun agindurik aurrena auxe da: «Zeure Jainko Jauna biotz-biotzez eta arima guztiz maite izango dozu» (Mat. 22, 37). Ez dago ezer au baiño gorago dagoenik. «Nik euki nai neuke itxas ondoan dagozan are-pikorrak aiña biotz, Zu, Jauna, maite izateko» (Agustin deuna).

Astun dana maitasunak bakar-bakarririk arindu oi dau, eta berak daki bizitzako gorabera guztiak gogo bardiñez eroaten; pisutsu dana nekatu barik daroa, garratza dana ezti ta gozo dau egiten... Ez daukazu ezer maitasuna baiño garaiago danik, ez indartsuagorik, ez zabal ta atsegiñagorik, ez bete ta obeagorik, ez zeruan ez lurrean; maitasuna Jainkoagandik ernea da, eta azkenez be ezin daiteke, izaki guztien gainez, Jainkoagan ezik, beste ezertan atsedendu, Kempis'ek diñoanez.

Olantxe be, gaur-egunean, askok uste dabe egin oi dautsoguzan ainbat irain, biurrikeri, agindu-auste, esanik ez-egite eta zabarkeri Jainkoak eroango dautsezala, eurak iñoiz euren seme-alabai itxiko ez leuskioezan bestekoak, ain zuzen be. Liburu Santuetan itaun dagi Jaunak:

«Ni Aita ba'naz, nun da nigazko begirunea? Ni Jauna ba'naz, nun da niri zor yatan lotsea?» (Mat. 1, 6).

Trajedi aundia izan daiteke Jainkoaganako maitasunean utsi egiteko zoritxar ikaragarria mundu onetan eta bestean; bai noberentzat eta bai errientzat.

Zer nai ete dau Jaunak gugandik?

«Egin daiket nik neuk nai dodana neure biziaz? Zenbat bidez oztopo edo kontrako itaun au entzun oi dogun! Alan be, naiko uste bakoa!

Or ondartzan neska-mutikoak; are pilloan nok gaztelu, arekoak nunbait, obeak egin leiaka dabiltz aldran, batzuk emen eta beste batzuk an. Emengo aldrean, euren gaztelu zoragarria amaitu ostean, beste lagunak zer egin daben ikustera joan dira, andik metro batzuetan. Areina miretsi ondoren, itzuli dira euren gaztelura, ta orduko beste mutiko batzuk artu dautsie eginda eukena.

— Zer zabize emen, gaztelu au geurea da! — esaten dautse p-razika.

— Ez, au gurea da. Zuok bertanbera itxi dozue; geuk aurkitu dogu.

— Baiña, geure gaztelua da!

— Zer esan gura dozue, zuok?

— Au geure gaztelua dala; geuk egin dogu, eta geuk egin dogu loko, geuk gura doguna egin geinke beragaz.

Geienez, bakotxak esan oi dau berak daukala arrazois; sasi-sa-ilea kanpora doa ta berentzat izan oi da gauzea.

Jainkoak ezerezetik egifia naz ni, eta ni Jaunarena naz. Ni Aita naz eta Berak egin daike nigaz nai dauana.

Orrela, bizia ez da geuri dagokiguna. Jainkoak egifiak gara; Jainkoarenak gara. Guk ez daukagu eskubiderik Jainkoaren kontra. Berak dau eskubide osoa guri bizitzea kentzeko edo-ta luzatzeko: gu ez gara geure biziaren jaube. Gu Jainkoarenak gara. Eskubide osoa dau gure nai dauan lez jokatzeko.

Gure egin bearra

Jainkoaganako gure egin bearrak urrengo arazo onetan batu errikeraz.

1. — *Gurtza*: ontasuna bera dalako, eta omena ta maitasuna zor dautsaguzalako.

2. — *Damua*: gu Jainkoaz onak ez garealako, damu gareala esan bear dautsagu.

3. — *Esker-ona*: Berak emon dausku dana, eta aurrerantzean be gertu daukagu Jauna guri laguntzeko. Ez gaitu iñoiz be bertanbera izaten.

4. — *Eskaria*: oso-osorik Aren laguntzaz gara gu zerbait; bizi izatea ta onak izatea Arengandik datorkiguz.

Gure zerbitzu maitekorraren zain dago Jainkoa. Aske egin gaitu, nai Bera maitatzeko nai Berari uko egiteko. Eta zerbitzu au ez dau itzaroten giza-makifia bategandik. Gu, egia, ba-gara nor Aren eskubideal aurka egiteko, geure eskuetan dago; baiña geienez beintzat oker aundia yaku orrela jokatzea. Beste izen batez esan, pekatu da Jainkoari aurka egitea, Aren naiaren kontra jagitea. Bear bada atsegin pizkat izaten dogu orretan, geure naia egitean, Jainkoaren borondatea ez bete-tean; orrela iruditzen yaku beifnik bein; baiña azken batean, naigabea besterik ez da geure Egillea iraintzetik jaso gengikena. Kezka, egon ezifia. Agustin deunak onela: «Zeuretzat egin gaituzu, ene Jainko!, eta ezin egonez daukagu biotza Zugan atsedean arte».

Berari eskifia bear dautsagu geure izate guztia, gogo, adimen, naimen; geure adimena gero ta geiago Bera ezagutzeko, otoitzean batez be, eta naimena, egunero Aren maitasunean azi ta ugarituz, Aren aginduak eta Aren naiaren agerpenak leialki beteaz.

Juan Vianey, Ars'ko apaiz santua, egurasten ebillen bein landa-ertz baten zear; adiskide bat eban lagun. Ederraren senpean ebiltzan biak, alkarrizketa gozoan. Txoriz beterik egozan zugatz-adarrak, eta airea arein kantuz galhezka. Apaiza, atzera geratu zan egazti kantari arein txintak entzuten. «Ai, txoriak! —esan eban azkenik—, kantatzeko jaiok zarie, eta zuok kantari diarduzue. Gizona be Jainkoa maite izateko ta kantatzeko sortua da, eta alan be ez diardu Jainkoa maitatzen eta kantatzen».

Iru nor

Naiz-ta gu Jainkoak berak bere antz eta irudira egiñak izan, Aretagandik gugana leza sakon amaigea daukagu. Jainkoak, alan be, Berataragin gaitu, bere aintzarako eta zorionerako. Bere sorkarieratik gizona dau eder eta aintzagarriena. Jainkoaren antza ariman daroa gizonak.

Jainkoagan, bat izan arren, iru nor (pertsona) dira: Aita, Semea eta Espiritu Santua. Aita daukagun lenen, betiren beti dana, iñork sortu bakoa; Aitak, oldoztu ta pentsatuz sortzen dau Semea; au be betiren beti dana; Aitagandik eta Semeagandik dator Espiritu Santua. Bion arteko arnasa bero, maitasuna dogu-ta. Aundia da Aita, aundia Semea eta aundia Espiritu Santua; alan be, ez dira iru aundi, bat bakarria baiño. Eta olaxe, bakar eta banangoan esan ohi dogu Jainko aitatsu ta on bat dagoela, ots, Irutasun Jainkoa. Jainkoagan, dakigunez, izate bat daukagu ta iru nortzu edo pertsona.

Ezta illa Jainkoaren izatasuna, bizi-bizia baiño; irakiten daukaguan bizia, eta egintza bizikorrez ekarri biziak sortzen. Ezagueraz eta maitasunaz sortuak dira Jainkoaren ekarriok, ots, frutuok. Indar utsada, arrazoiak diñoskunez, jainkozko izatea, Jainkoa bere burua ezagutzeta ta maitatzea bait dau xede ta elburu. Misterio aundi baten aurrengagoz, baiña fedeari oratu ezkeru, onek diñosku zelako loratze joria dagon Jainkoaren izate sakonean: Jainko Aitak, bere baitako ezaguerabiziz, bere barne Itza sortu daroa; eta bion arteko maitasuna asgoran eko ats-artzean da nabarmentzen.

Guri dagokigu, beraz, Irutasun orrek egiñak garealako, Jainko bakar-iru ori maite izatea ta al giñoan beintzat geure bizitz-egite onen bitartez kantatzea. Daniel'en Liburu Santuko kantikan izaki guztiak Jainkoa goretsi bear dutela irakurtzen ba'dogu, guk, izakien artean gorrengo maillakuok, ardura geiago ipiñi bear dogu orretan gau ta egun jardun izateko.

Bego emen, amaitzeko, Nabukodonosor'en aginduz labe barruko sutara jaurtiak izan ziran iru gazteak, batera, abestu eben kantika ta sugar artean egonik be, Jainkoak egiñak zirala-ta, pozarren abestu ebena.

Bedeinkatua Zu, Jauna, gure gurasoen Jainkoa:
Aintza ta gorespen Zuri betiraun guztian.

Bedeinkatua zure izen santu ta aintzagarria,
goratua ta ospatua Zu gizaldi guztietan.

Bedeinkatua Zu, zeure erreñoko Aulkian;
Aintza ta gorespen Zuri betiraun guztian.

Bedeinkatua Zu, zeure jauretze santuan,
Ospe ta aintza Zuri betiraun guztian.

Onelako kantuz ospatu bear dogu guk be geure Egillearen aunditasuna.

A. O.

GUK EUSKERAZ...

ZUK

ZERGATIK EZ?

Euskalerriko lantegi ornigaiak

Ferreteria UNCETA, S. A.

Tel. 70 01 00 (Bost linea) Apdo. 18
Teleg. «Ferrunceta» - Ibarrecruz, 14

EIBAR